

# ALAKIEN, GABON-KANTA ALA BERTSO SATIRIKOAK?

Agustín Mendizabal

Koxme Lizaso oiartzuarra zena bertsolari bikaina izateaz gain, tradizioz jasotako ondarearen iraunarazle sutsua ere bazen. Ezaguna da euskara egokiarekiko bere kezka, eta baita Erretereriako Urtezahar ilunabarrean urte bakar batean huts egin gabe koplari aritzeko hartu zuen erantzukizuna ere, hiru hamarkadatan zehar.

Hain ezaguna ez dena, agian, kanta zaharrekiko zuen atxikimendua da. Bere alaba Mirari eta Ireneri esker –Amaia Cardonaren bitartekaritza-, bi kanta zahar ikasi ditugu, ez da denbora asko; horiek “Hau leku aitorra!” liburuan agertu nituen iaz. Orain “Alakien, alakien” kantari buruz jardungo gara. Oroit dezagun Koxmeren alabek berritutakoa<sup>1</sup>:

Alakien, alakien  
alakien eta sunbaile  
responde la Mikela Xunba  
Jesus, Maria ta Jose.

1. irudia

1

Alakien, alakien

Lizaso ahizpek

A - la - kien, a - la - kien A - la - kien e - ta sun - bai - le res -

pon - de - la Mi - ke - la Xun - ba Je - sus Ma - ri - a ta Jo - se.

1 Mendizabal, A. (2017), *Hau leku aitorra! Oartzun haraneko bertso eta kanta zahar bilduma berria*. Oartzungo Udala.

Horretan Txirritaren pareko ageri zaigu Lizaso, “bertso zarretan asko zekian” jakinarazten baitigu Antonio Zavalak, Auspoaren Sail Nagusiko bere alean, 236. orrian. Segidan, ilobak bertsolari handiari ikasitako kanta zahar honen berri ematen digu, osabak *kontentu eta pozik zegoan aldietan* kantatzen omen zuena<sup>2</sup>:

Nere andreak badirudi  
zaku gaizki josiya;  
beretzako gordetzen du  
gauzik onen guziya,  
astelenetan neretzako  
sardin begi gorriya;  
alaken alaken,  
alaken eta txunbailen,  
*erresponde la Mikela Txunba,*  
*Jesús, María y José.*

Nere andreak badirudi  
zaku gaizki josiya,  
nere andreak badirudi  
zaku gaizki josiya:  
aragi gordiña badauka,  
eltzian egosirik ez;  
alaken alaken,  
alaken eta txunbailen,  
*erresponde la Mikela Txunba,*  
*Jesús, María y José.*

## 2. irudia

Berehalaxe konturatzen gara Koxmerena Txirritaren kantaren errepika edo estribilloa dela, eta aldi berean denok ezagutzen dugun “Alaken, alaken”-en hasiera ere bai; doinuen artean ere, badago lotura urrun bat (ikus geroago). Ezaguna da Imanol Urbietak eman zuela ezagutzera ez ohikoa suertatzen den Gabon-kanta hau, 1957an;

<sup>2</sup> J. M. Olaizola “Txilikuk” ere honi buruz idatzi zuen Urola-Kostako *Hitzan*, 2018ko otsailaren 22an, “Alaken” artikuluan.

## Nere andreak badirudi

Joxe Ramon Erauskin Lujanbiok

Ne-re an-dri-ak ba-di-ru-di sa-ku gaiz-ki jo-si-ya, be-re-tza-ko gor-de-tzen du gau-zik o-nen gu-zi-ya, as-te-le-ne-tan ne-re-tza-ko sar-din be-gi go-ri-ya; a-la-ken, a-la-ken, a-la-ken e-ta txun-bai-len, e-rres-pon-de la Mi-ke-la Txun-ba Je-sús, Ma-ri-ay Jo-sé.

Andoni Egañak Txilikuri kontatu zionez<sup>3</sup>, sari eta guzti. Geroztik, ikastoletatik hasita eta noranahi geroago, Euskal Herriko txoko guztietara zabaldu da:

Alaken, alaken,  
ala pikula tun paire,  
errespunde la pikula tunpa  
Jesus Maria Jainkoa zen. (bis)

Adiskideok!  
Ikusi duzue zelai horietan artzaina,  
artzain txiki,  
artzain handi,  
artzain mutur leuna.

Alaken, alaken...

Lo leri lelo, goxo dek goxo,  
neguan etxe txokoa. (bis)  
Gaur jaio da, gaur,  
Jesus Haurtxoa.  
Lo leri lelo,  
hiru errege

<sup>3</sup> Ikus honen aurreko oin oharra. Halaber, ikus eta entzun ETBko “Tumatxak”, 2013/12/22ko saioan eta Euskadi Irratiko “Amarauna”-ren 2016/01/06ko saioan. Iratzederren (1920-2008) testu batetik berak asmatua ere badela badio, baina ikusiko dugun bezala, gehienez ere kantaren bigarren zatia buruz ariko litzateke, lehena herrikoia baitzen aurreragotik.

izar baten arrastoan.  
Lo leri lelo,  
tranka, trankatran,  
hirurak zaldiz badoaz.

Alaken, alaken..

Baina Imanol Urbietak lau haizetara hedatu baino lehenagotik bazuen ibilbide bat kanta honek: Aita Donostiak jaso baitzuen, bi aldaeratan gainera: Hazparnen (1935ean) eta Larresoron (1941ean)<sup>4</sup>. Biak antzekoak izan arren, bigarren hau da gaur egun guztiok ezagutzen duguna, ia hitzez hitz eta notaz nota; Urbietaren kanta, hala ere, bigarren zati bat ere badu (“Lo leri lelo...”), hitzez eta doinu ezberdina, segur aski bere luma joritik aterea. Baina benetan al da hau bere sorreratik Gabon-kanta bat?

Begira ditzagun Oxtikenekoak elkarteak argitaratutako Senpereko *Kanta zahar bilduma 1999-2009* CD ederrak. Bigarrenean Pierrot Bordak 2001ean kantatutako harribitxi hau topatuko dugu<sup>5</sup>:

ne - re - tza - ko sar - din

ken - e - ta txun - bai

la - kes e - ta Txun - pai - re, ko - rres -

4 Donostia, J. A. (1994), *Cancionero Vasco I*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. 78 eta 78 (1) zenbakiak dira, hurrenez-hurren. Hazparnekoa, 1935eko *Gure Herria* aldizkariaren 6. alean argitaratua zuen “Deux Noël’s” izenarekin, “Verbum caro factum est”-ekin batera.

5 Neronek etzundakotik transkribatua. CDaren liburuxkan datorrenarekin ez dago alde handirik.

## Alakes

3

Pierrot Bordak

A - la - kes, A - la - kes, A - la - kes e - ta Txun - pai - re, ko - rres -

pon - dan - tzi - a Mi - ke - le - txu - ak Je - sus Ma - ri - a bien - ko - xe. Ne - re

an - dre mu - tur beltz, ez - pain haun - di hor - tzik ez, ha - ra - gi

gor - di - na mai - te du bai - nan e - go - si - ri - kan ba - te - rez.

... egun<sup>6</sup> eta bi urtetan  
batek nahi zuen yosten ikasi, bertziak  
berriz ezkondu.

Alakes, Alakes, Alakes eta Txunpaire  
korrespondantzia Mikeletxuak, Jesus,  
Maria, bienkoxe<sup>7</sup>. (bis)

Hik hoben dun Maria mutxurdi<sup>8</sup>  
gelditzia  
plazaz plazaz hor ibiltzeko atxikan  
libertatia. (bis)

Alakes, Alakes, Alakes eta Txunpaire  
korrespondantzia Mikeletxuak, Jesus,  
Maria, bienkose. (bis)

Nere andre mutur beltz, ezpain haundi  
hortzik ez  
haragi gordina maite du bainan  
egosirikan baterez. (bis)

Alakes, Alakes, Alakes eta Txunpaire  
korrespondantzia Mikeletxuak, Jesus,  
Maria, bienkose.

3. irudia

6 Ehun.

7 Liburuxkan, “Jainkoxe” dio. Nik, gehiago entzuten ditut “bienkoxe”, eta “bienkose”.

8 Kasu honetan, ezkongabe.

Doinua, Txirritaren ilobaren ahotik entzundakoari lotua dago: erritmikoki berdina, bata minorrean eta bestea maiorrean, balirudike Senperekoa bestearen goiko ahotsa dela. Eta errepikaren bukaera aldera, berriz (“korrespondantzia...”-tik hasita), balirudike hau “Alaken” ezagunaren beheko ahotsa dela. Beraz, hiru doinuen artean badago lotura, nahiz agerikoa ez izan. Koxme Lizasorena ere, Pierrot Bordaren doinuaren hurbileko jo daiteke, erritmoa alde batera utzita.

Aipatu elkarte horrek berak argitaratutako *Senpereko kantu zaharrak* liburuan berriz<sup>9</sup>, aurrekoaren adinako harribitxia topatuko dugu, Antton Irubetagoienaren ahotik entzundakoaren transkribapena osorik baitator, nahiz doinurik gabe:

Erdi nuzu hogeitalau urtetan,  
Hemezortzi seme, sei alabetan,  
Nere senarrak ez dik parterik hoietan orotan,  
Bakar hura mulinekin errotan, gaitzeru bat artotan.

1. Bi atso zahar zahar, ehun eta bi urtetan,  
Batek nahi zuen josten ikasi, eta bertzeak ezkondu.

Alaket, alaket, alaket eta xunpaire  
Korrespondentzia Mikeletsuak, kexu Maria, bien  
Koxe.

2. Hik hobe dun Maria mutxurdin gelditzea, Plazaz-  
plazaz hor ibiltzeko atxikak libertatia.  
Alaket, alaket, alaket ...

3. Nere andre mutur beltz, ezpain haundi, ortzik ez,  
Haragi gordina maite du baina egosirikan batere.  
Alaket, alaket, alaket ...

Ohar gaitezke Senpereko bi aldaeretan ageri zaigula Txirritak aipatzen zuen “haragi gordina”-ren kontua; lotura, beraz, arenabariagoada, eta doinuen parekotasuna ikusita, zer esanik ez. Baina batez ere, ohar gaitezen kanta satiriko bat dugula, bete-betean, Eguberriarekin batere loturarik ez duena. Antton Irubetagoienaren “Korrespondentzia Mikeletsuak, kexu Maria, bien Koxe” horrek eman liezaguke agian giltza; Gabon-kanta

bihurtzeko abiapuntua, itxurazko *Jesus, Maria, (y) Jose* edo *Jainkoa zen* horiek izan litezke: ahozkotatasunaren baitan gertatu ohi den bezala, jatorrizko hitzak testuingurutik kanpora entzutearen ondorioz desitxuratu, eta esanahi eta balio zeharo ezberdinak hartu izango zituzten. Azkenean, inolako esanahirik gabeko hitz saldoa, kanta nolabait “apaintzen” duena, ia “dekorazio olerki” bihurtzeraino, Gabon-kanta baterako aproposa.

Ikus dezagun Hazparneko aldaerak dioena, Aita Donostiak 1935ean Mme. Espil delako bati jaso bezala, eta 1935eko *Gure Herria* aldizkariaren 6. alean “Deux Noël’s” izenaren pean argitaratua:

Adixkidea, ikusi duzuya<sup>10</sup>  
Zelai horietan artzainik:  
Artzain tipi, artzain handi,  
artzain mutur legunik?

Alaken, alaken,  
ala pika ala ttunpairen.  
Errespun dela pikala tun pa  
Jesus, Maria, Jainkoa zen.

Larresorokoak hala dio, Aita Donostiak 1941ean Leon Elissalde seminaristari jaso bezala:

Alaken, alaken,  
ala pikalatun paire  
errespundela pikalatun pa  
Jesus, Maria, Jainkoa zen.

Adixkidea, ikusi duzia  
Zelai horietan artzaina,  
Artzain ttipi, artzain haundi,  
artzain mutur leguna.

Zerk adierazten du hor Gabon-kanta izaera? Nire ustez, argi eta garbi behintzat, ezerk ez; “Adixkidea...” ahapaldiak zer edo zer bai, baina zeharka. Berez, izan liteke agian, Senpereko kantetan galdu den zati bat, edota Eguberri kutsu difusoa emateko helburuarekin sortutako zerbait ere bai, nork jakin<sup>11</sup>.

9 Urkizu, P. / Intxaurrandieta, P. (2001), *Senpereko kantu zaharrak*, Lankidetzan bilduma, 18. Oxtikenekoak Kultur Elkartea. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001. 66. orrialdean.

10 “Ikusi duzuya”, beste aldeko euskalkietan “Ikusi al duzu?” galdera egiteko modua da.

11 Aita Donostiak berak, esan bezala, “noël”-tzat jo arren, herriak benetan erabilerari hori ematen al zion? Baietz pentsatu beharko dugu, baina beharbada ez hain aspalditik.

Dena dela, kanta honen esanahi osoa nahikoa ilun geratzen zait niri. Maria eta enparauak aipatzen direneko zehaztasun urriaz gainera (“Jesus, Maria eta Jose”, “Jesus, Maria eta bienkoxe”, “kexu Maria eta bien Koxe (edo Joxe)”), nor edo zer dira “Alakes eta Txunpaire”, “alaket eta xunpaire”, “alakien eta sunbaile”, “alaken eta txunbailen”? Onomatopeia huts ala pertsonaia zelebre pare? “Alaket” horretan euskarazko “laket” ote dago? Edo beharbada, jatorriz gaskoizko hitzak dira (Auxtin Zamora senperrak niri iradoki bezala), edota gaztelaniazkoak. Ezagutzen baitugu halako beste bat, hain zuzen, Etxahun-Barkoxeren “Eihartxe eta Miñau”ren –Patri Urkizuren arabera fartsa edota astolaster baten sarrerako bertsoak diren<sup>12</sup>– lehen bertsoan dagoen hizkuntza nahaspila: latina, gaztelania, euskara, frantsesa, gaskoia entzuten baitira<sup>13</sup>. Eta Mikeletxuak (Michèle edo Mikele atsoa?) zein paper betetzen du “korrespondantzia” hori eginez?

Errepikari (Alaken, alaken...) antzematen diodan tonu burleskoari arestian esandakoa gehitzen badiogu, denak pentsarazten dit gure aurrean dugun hau ezin ote litekeen izan astolaster galduren baten zatia (Txirritarena eta Senperekoak elkartuz, eta beharbada Hazparne eta Larresorokoa ere bai), garai bateko moral-txoil zaharkituaren– araberako gaia, bere trataera satirikoa ikusita. Gutxienez, bertso sail satiriko mingarri bat dugula argi ikusten den gauza da.

Eta horra hor, zer bide egiten duten herri-kantek!

Bukatzeko, arreta sortzen duen beste kontua zera da: gure herri zatitu honen iparralde eta hegoaldearen artean, betidanik, euskal kulturaren arloan zein eguneroko bizitzan izan diren harreman eta loturak hemen ere ageri zaizkigula. Eutsi diezaiogun horri gogoz!

12 Urkizu, P. (1999), “Zuberoako irri-teatroa”. Oihenart, 16. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

13 “Sed libera nos a malo sit nomen Domini; / Vamos a cantar un canto para divertir; / Jan dūgūnaz gerozti xahalki huneti. / Eta edan ardua Juranzunekoti, / Chantons mes chers amis, / Je suis content pardi, / Trinquam d’aquest bun bi / Eta dezagūn kanta khantore berri.”

Ne-re an-dri-ak ba-di-ru-di sa-ku  
tzen du gau-zik o-nen gu-zi-ya, as-te -

6  
A - la - kien, a - la - kie

11  
be - gi - go rri - ya; a - la - kes,  
A - la - kes, A - la - kes,

5  
pon-dan-tzi-a Mi-ke-le-txu  
an - dre mu - tur beltz, ez - pain haur

10  
A - la - kien, a - la - kie

Ne-re an-dri-ak ba-di-ru-di sa-ku  
tzen du gau-zik o-nen gu-zi-ya, as-te -

6  
A - la - kes, A - la - kes,